BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4523

AGINDUA, 2012ko irailaren 25ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Mutrikuko udalerriko 75 etxebizitza sozialen EB3-0275/08-EC-000 sustapenean, esleitu gabe geratu diren etxebizitzak esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena.

GERTAKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen du. Hori, Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 28ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen da.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko martxoaren 11ko Aginduak, Mutrikuko udalerrian 75 etxebizitza sozial esleitzeko hautaketa prozesua hasten zuen (2011ko apirilaren 15eko EHAA). Etxebizitza horiek 2011ko ekainaren 7an zozkatu ziren.

Agindu horretako hamaikagarren ebatzian, besteak beste jasotzen da, itxaron-zerrenda agortuz gero, esleitu gabe geratzen diren etxebizitzak, lurralde ordezkariak zozketa bidez esleituko dituela, eta posible izango dela kontuan hartuko den Etxebideko eskabideen izen-emate data atzeratzea.

Ekainaren 7ko zozketako itxaron-zerrendak agortu egin ziren, eta hori zela eta, 2012ko uztailaren 12an eta abuztuaren 3an, beste bi zozketa egin ziren, Etxebideko eskabideen izen-emate datak atzeratuz.

Azken bi zozketei dagozkien itxaron–zerrendak ere agortu egin dira, eta oraindik etxebizitza horietako batzuk esleitu gabe daude.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Organo honi dagokio honako zehaztasunak finkatzeko eskumena, hala xedatzen baita Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluan eta baita babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2008ko apirilaren 16ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren 7. artikuluan ere.

2.– Sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduak, honakoa adierazten du 7.1. artikuluan:

«Hautespen-prozesua Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez hasiko da. Agindua sustapenaren behin-behineko kalifikazio-egunaren ondoren eman beharko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.»

3.– EB3-0275/08-EC-000 sustapeneko 75 etxebizitza sozialak esleitzeko hautaketa-prozesua hasten zuen Aginduan, arestian aipatutako hamaikagarren ebatzian hau jasotzen zen:

«Itxaron-zerrenda agortuz gero, esleitu gabe geratzen diren etxebizitzak, dagokion lurralde ordezkariak zozketa bidez esleituko ditu araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten

eskabideen artean. Posible izango da Etxebiden izena emateko eskabideak kontuan hartuko diren azken eguna atzeratzea eta sustapenean interesa dutela adierazitako udalerriak zabaltzea.»

4.– Ebatzi horretan jasotakoari jarraiki, bi zozketa gehiago egin dira; baina, hala ere zenbait etxebizitza esleitu gabe geratu dira. Beraz, beste zozketa batean parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak aldatzea beharrezkoa ikusten da, baldintza berriak Agindu baten jasoz. Eta berariazko esleipen prozedura bat ezartzea ere beharrezkoa ikusten da, azken zozketa horren ondoren esleitu gabeko etxebizitzak gera daitezkeela aurreikusiz.

Aipatutako lege-xedapenak eta oro har gai honetan erabilgarri diren gainerakoak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honetan Mutrikuko udalerriko EB3-0275/08-EC-000 sustapenean esleitu gabe geratu diren zenbat etxebizitza sozial esleituko dira.

Bigarrena.– Esleipena Gipuzkoako lurralde ordezkariak egingo du zozketa bidez eta Mutrikuko udalerrian etxebizitza soziala alokairuan eskatzen duten espedienteak hartuko dira kontuan. Eskatzaileek, honako Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean, bete beharko dituzte ezarritako baldintzak.

Hirugarrena.– 2011 zergaldiko diru-sarrera haztatuak 3.000 euro baino txikiagoak ez direla eta 25.000 euro baino handiagoak ez direla egiaztatzea eskatzen da. Mugikortasun urria duten ezgaituak edo ezgaitu psikikoak izanez gero, ez da eskatuko gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatzea.

Laugarrena.– Etxebizitzen etorkizuneko titularretakoren batek erroldaturik egon beharko du Mutrikuko Udalerrian honako Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean.

Etxebizitzak esleitu gabe geratuko balira, etxebizitza horiek Deba, Mendaro eta Ondarroako udalerrietan erroldatutako Mutrikuko etxebizitza sozial eskatzaileen artean esleitu ahalko dira. Etorkizuneko titularretakoren bat erroldaturik egotea nahikoa izango da.

Hala ere, Etxebizitzak esleitu gabe geratuko balira, etxebizitza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatutako Mutrikuko etxebizitza sozial eskatzaileen artean esleitu ahalko dira. Etorkizuneko titularretakoren bat erroldaturik egotea nahikoa izango da.

Bosgarrena.– Zozketaren ondoren etxebizitzak esleitu gabe geratuko balira Gipuzkoako lurralde ordezkariak esleituko ditu antzinatasunaren arabera Mutrikuko udalerrian etxebizitza soziala alokairuan eskatzen duten espedienteen artean. Eskatzaileek, alokairu-kontratuari oniritzia emateko aurkeztutako egunean, bete beharko dituzte ezarritako baldintzak.

Seigarrena.– Hautatutako eskabideekiko etxebizitza zehatzaren esleipena, etxebizitzaren azalera eta ezaugarriak bizikidetza unitatera egokitzen direla kontuan hartuz, egingo da.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke hilabeteko epean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 25a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.